

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Zaborrak bildu eta ezabatzeko zerbitzua prestatze-tasaren kontribuzio padroia. 2024ko urtea. (Espedientea: 2024/3918)

Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia Azpiarloak prestatu egin du 2024 eragiketa urterako Laudio udalerrri barrutian zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzua emateagatiko tasari dagokion kontribuzio-zerrenda edo errolda.

Alkate-udalburuak onartu du 2024ko abenduaren 16an, 2105 zenbakia duen ebazpenaz. Zerrenda hori jendaurrean erakutsiko da ALHAOn iragarki honen argitalpen egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) lan eguneko epean zehar.

Interesa dutenek aipatu den zerga-espediente hori aztertu ahal izango dute Ekonomia Azpiarloaren bulegoetan (Errentak eta Ordainarazpenak), udaletxean (Herriko Plaza – Bigarren solairua), 9:00etatik 14:00etara. Halaber, beren eskubideen alde egokitzat jotzen dituzten argibideak, alegazioak eta/edo erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

Kontribuzio padroia jendaurrean erakustek esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko udal ordenantza fiskal orokorreko 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zergadunek berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dute alkate-udalburuaren ebazpen horren aurka hilabeteko (1) epean, iragarki hau jendaurrean jartzeko aldia amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Argibideak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze-errekurtsoak alkate-udalburuari aurkeztuko zaizkio, lehen aipatutako epeetan.

Borondatezko aldian biltzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2025eko urtarrilaren 24 egunetik 2025eko martxoaren 24 egunera arte, biak barne.

Helbideratuak dauden ordainagiriak 2025eko otsailaren 24an kobratuko dira.

Zerga honen ordainketa helbideratua ez dutenek, ostera, bide hauek izango dituzte ordaintzeko:

1. Kutxabank, Laboral Kutxa eta Rural Kutxa banku erakundeen sukurtsaletan, horiek irekita dauden ordutegian, ordainagiria aurkeztuta.

2. Udal webguneko "Nire Ordainketa" ordainketa pasabidea erabilita.

3. Udaletxean, horretarako prestatutako bulego elektronikoan, banku-txartelaz.

Borondatezko aldian dirua biltzeko epea amaitutakoan, ordaindu ez diren kuotak premia-mendu-prozeduran sartuko dira automatikoki, eta legez ezarritako errekarquak sortuko dira, eta, hala badagokio, berandutze-interesak eta sortutako kostuak.

Laudio, 2024ko abenduaren 16a

Alkate-udalburua
AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ